



### 5. Etenik gabeko kontaketa

Haurren parte hartze kanala iraunkorra izango bada, bertan geratzen denaren kontakizunak etenik gabea izan beharko du. HPKlerra gerturatzen den haur berriak jakin beharko du bertan aurrez gertatutakoa. Kontakizun historikoa egitea garrantzitsua izango da, haurra konturatzeko aurrez martxan zegoen zerbaitezara gehitzen ari dela.

Gure HPKlean landutakoei erreferentzia egiten dieten argazkiak, objektuak... espazioan, maleta batean batzen jaoteak lagun diezaguke, kontakizun honi laguntzeko.

Honetan asko lagunduko luke HPKleko hezitzaileak denboran iraunkorrak izateak.

*Behaketa: heldu  
bidelagunaren  
lan tresna  
6. garrantzitsuen*

Oinherritik uste dugu hurrekin parte hartze saioetan presente egon behar duen helduak hurren bidelagun izan behar duela. Hau oso modan dagoen hitza izanik, bidelagun izate hori zer den xehetzen saiatuko gara.

Bidelagun izateak esan nahi du bigarren plano baten geratzea. Protagonismo osoa hurrei uztea. Prest egotea hurrek nahi duten lekuetara bidaiatzeko. Hurrei gorputz osoarekin entzuteko, eta esateko daukaten hori guztia jasotzeko zalantzarik gabe helduak egon behar du. Presentziaren garrantzia. Baina menpekotasunik sortu gabe.

Hurrekin presente egongo den helduaren begirada klabea izango da bertan gertatuko den guztia behatzeko. Behaketa, dokumentazio eta interpretazioa izango direlako gakoak.

Oinherritik beti azpimarratzen dugun moduan hurrak gaitasundun subjektu aktibo moduan ikustea izango da klabea. Horretarako ure begirada nondik enfokatuko dugun ondo definitzea ezinbestekoa da.

Ezin gara hurrekin egon, ez badugu konexiorik beraiekin. Disfrutatu behar dugu beraiekin gaudenean, sinistu behar dugu haur bakoitzak zerbait erakutsi ahal digula.

Haurtzaroa bizitzako etapa garrantzitsuenetako bat da, pertsonaren garapenean klabea baita. Gure lana da haur horiei herritarrak izaten laguntzea, kolektibo moduan dituzten eskubideen inguruan kontzientzia hartzen akonpañatzea. Kolektibo moduan autoantolatzen ikasteko tresnak eskainiz. Horretarako, gure ezagutza, bihotza, gorputza, gure osotasunean presente egotea behar-beharrezkoa izango da.

#### *GURE BEGIRADA IZANGO DA LANERAKO TRESNARIK GARRANTZITSUENA*

Begiratzea eta behatzea ordea ez dira gauza bera.

**BEGIRATZEA** da ezer bilatu gabe ikustea, kanpora begiratzea, kamara objetibo batekin grabatzen ariko bagina moduan.

**BEHATZERAKOAN** intentzionalitate batekin ari gara, zerbaiten bila gabiltza. Aurrez finkatu ditugun helburu batzuk dauzkagu, desio batzuk, inplikazio bat eskatzen du. Ez da kanporazko ariketa bat soilik, barrurankoa ere bai. Gauzak behatzerakoan zerikusi handia baitauka ikusten ari garen horren interpretazioak. Eta intepretazioa beti gure barne egoerak baldintzatzen du.

Behaketa **INOIZ EZ BAITA OBJETIBOA:** Behatzen dugunak gure barne historiarekin oihartzuna egiten duelako. Gure momentuko emozioekin talka egiten du. Zerbaitekin konektatzen gaitu. Horregatik besteak behatzen ditugunean gu geu ere behatu behar gara.

Behatzeko prestatuta joan behar gara. Zer behatuko dugun definituta, zer den garrantzitsua behatzea aurrez identifikatuta. Gutako bakoitzak gauza ezberdinak behatzen ditu, gure bizi istorioarekin konektatzen dugulako. Horregatik, besteak behatzen ditugunean gu geu ere behatu behar gara. Ez da kanporanzko prozesu bat bakarrik, barruranzkoa ere bada. Nola sentiarazten nau behatzen ari naizen horrek? Auto-behaketa bat ere badelako.

Behaketak izan behar du globala. Gertatzen ari denaren osotasuna kontutan izango duena. Begirada zabala, irekia. Haur bakoitza ikusten duena baina taldean gertatzen ari dena begibistatik galdu gabe. Presarik gabea, emaitzen bila ibili gabe.

Behatzen ari garen bitartean lanean ari gara. Lana ez da hasten behaketa bukatzen dugunean. Begirada gure lan tresna da. Hurrak hartzaile sentikorrek dira. Dena hautematen dute. Gure begiradaren atzean dagoena ere bai.

Begiratzen dugun modua oso garrantzitsua izango da hurrekin

binkuloa eraikitzeke. Konfiantzazko harremanak eraikitzeke. Eta hau, era beraen, ezinbestekoa da haurren benetako parte hartzea sustatzeko. Ez dugu behatzen epaitzeko, baizik eta datu esanguratsuak jasotzeko. Behaketaren bitartez jasotzen ari garen sentsazioak ordenatzeko, behatzen dugunak zerekin konektarazten gaituen eta horrek nigan probokatzen duena identifikatzeko. Eta guzti horretatik gero erabakiak hartzeko, zer aldatu behar dugun, zer ez... malgutasunez gure HPKlan gertatzen dena eraldatzen jarraitzeko.

### *BEHAKETAN JASOTZEN DUGUNA ONDO INTERPRETATZEKO ERREGISTRO ON BAT BEHAR DUGU*

Denbora beharko dugu behatu dugun guztia transkribatzeko. Behaketan esanguratsua iruditu zaidan hori jasotzeko. Horretarako saioak graba ditzakegu, bideo edo audioan, edo apunteak hartzen joa. Bakoitzak bilatu behar du bere teknika.

Benetan lagunduko diguna behaketaren orduan zertan fijatu nahi dugun ondo identifikatzea, adierazle batzuk adostea eta gure beharretara egokitzen den erregistro horri bat diseinatzea.

Guzti honek **EBALUAZIOA** egiteko aukera emango digu eta, ebaluazioaren ikuspegi aldaketa bat egitea ahalbideratuko digu: haurrak ebaluatzetik testuingurua ebaluatzerara pasatuko gara.

Orain arte ebaluazioan fokoa haurrarengan jarri izan da. Umea ebaluatzen da. Guk begirada haurra bizitzen ari den testuingurura pasatzea proposatzen dugu. Testuingurua ebaluatzerara. Testuinguruan eragin ditzakegun hobekuntza aldaketak identifikatzerara. Hori baita guk heldu moduan eraldatu ahal izango duguna. Guk proposatu dugun espazioak, dinamikak, haurrari bere onena emateko aukera eman dio? Haur guztien parte hartzea ahalbideratu dugu?

Orduan, umea behatuko dugu, ikusteko ea eskaini diogun testuingurua egokia den ala ez. Testuingurua diogunean, fisikoaz zein erlazionalaz ari gara.

- Testuinguru fisikoa: espazioak, denborak, materialak, proposaturiko jolas, dinamikak... Ez dira neutroak, hezitzaileak dira. Nolako espazio proposamena, halako aktibitate garapena. Umearen beharrei erantzuten dieten testuinguruak aukeratu behar ditugu. Materiala aukeratzekoan noren beharra den kontuan izan: haurarena, helduarena, gizartearena? Materialak egiten duen erabilerak asko esango digu haurarren beharraz. Dinamikak planteatzerakoan berdin.

- Testuinguru erlazionala: heldu, haur, familia...harremanak. Heldua behatzaile eta behaketagai da aldin berean. Ebaluatzaile eta ebaluagai. Autobehaketa eta autoebaluazioaren garrantzia. Honetan, ko-ebaluazioa klabea izan daiteke, bidelagunen artekoa, elkarri egiten diogun ebaluazioa.

Ebaluaketa elkartruke bat da. Bi norantzatakoa, etengabe gertatzen dena. Inolaz ere ez epaiketa edo kritikatik egindakoa. Ezin da bukaerarako utzi. Umeak etorri baino askoz lehenago diseinatu behar da. Umeekin gaudenean behaketa lana egingo dugu. Ondoren, erregistroa egiterakoan behatutakoaren inguruko hausnarketa, eta azkenik, ebaluazioa, eraldaketarako neurriak hartzeko.

Kontua ez da zein ebaluazio tresna erabiltzen dugun. Jakin behar dugu zergatik eta zertarako ebaluatu nahi dugun. Irizpideak/ adierazleak adostu behar dira, eta hori kontuan hartuta, gure beharretara egokitzen diren behaketa/erregistro eta ebaluazio tresnak sortzea litzateke egokiena.

## HAURREN PARTE HARTZEAREN BEHAKETA ADIERAZLEAK

### *Haurrei dagozkionak:*

- Haur kopurua. Zenbat haur etorri dira? Nolakoak? Aniztasuna, generoa, klase soziala, desgaitasuna, kultur aniztasuna eta familia ereduari dagokionez.
- Nolakoak izan da haurren parte hartzea? Denek parte hartu dute?
- Giroa: eroso sentitu dira? Taldeko dinamika nolakoak izan da? Gatazkak egon dira?
- Haurrek hitzez edo beste lenguaia baten bidez (dinamika artistikoaren bat erabili baldin badugu...) esan dituztenak eta lanketak egiteko hari muturrak izan daitezkeen erregistroa.
- Hitzez ez den beste moduren batera haurrek lanketak egiteko hari muturra izan daitezkeen pizarrik eman digute? Komunikazio ez berbalaren erregistroa.

### *Autoebaluazioa:*

- Ni nola nago
- Nola sentitu naiz, zein emozio izan ditut saiona zehar
- Nola hasi naiz eta nola amaitu dut
- Zein espektatibarekin nator eta noa
- Zer da proiektatu dudana
- Nola konektatu dut haurrekin. Denekin konektatu dut ala ez. Zergatik?
- Espazioan nola kokatu naiz? Non sentitzen naiz erosoan, non deserosoan? Zergatik?
- Dinamikan nola baneratu naiz? Zein izan da unerik atseginena? Zein desatseginena?
- Zertan saiatu naiz eta zer lortu dut?
- Zein ikasketa atera dut?
- Zein behar sortu zaizkit?

### *Testuinguru erlazionalari dagozkionak:*

- Haur/haur harremana nolakoak izan da: gatazkak, binkuloak, lotura afektiboak, jolas motak, rolak..
- Haur/heldu bidelagunaren arteko harremana nolakoak izan da: nola zuzendu naiz haurrengana, begietara begiratu diet, segurtasuna eskaini diet, esateko zeukatena entzun dut, zein umeri eskaini diot denbora/arreta gehien, zeini gutxien...
- Bidelagunen artean nola konpondu/koordinatu gara, elkar enpatiaz entzun dugu, elkar epaitu gara
- Haurren familiekin harremana nola joan da: haurra behatzeak eragin ahal du familia epaitzea, aurreiritziak sortu zaizkigu, familietatik bueltan zerbait jaso dugu, badaukagu horretarako kanalik...

### *Testuinguru fisikoari dagozkionak:*

- Aukeratu dugun espazioa egokia izan da: behar fisikoak asetu dizkigu, jolas beharrak, mugimendu beharrak, irisgarria izan da guztientzat, proposaturiko dinamikak aurrera eramaten lagundu digu, harremanak eraikitzeke aukera eskaini digu, espazio goxo eta segurua eskaini digu
- Aukeraturako materiala egokia izan da, materialen bat faltan bota dugu, aukeraturiko materiala egokitu da haur bakoitzaren beharretara, espero ez genuen erabileraren bat eman diote materialari
- Denborak egokiak izan dira, zerbait luzeegi edo motzegi geratu da, patxadaz, lasaitasunez aritu gara ala presaka eta ezin iritsita, behatzeko denbora izan dugu ala dena dinamizatzeko behar izan dugu.
- Proposaturiko dinamikak egokiak izan dira, haur guztien parte hartzea ahalbideratu dute.

# Erreferentziak

- Marta Martinez, <https://www.enclavedeevaluacion.com/quienes-somos/>
- "Hurren hiri" Francesco Tonucci
- "Manual de guerrilla urbana. Para niñas y niños que quieren conocer y defender sus derechos" Francesco Tonucci
- "La oreja verde de la escuela" Carmen Diaz Navarro
- "Pedagogia de la vida cotidiana y participación ciudadana" César Muñoz
- Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones. Maria Rodó-Zárate
- Dialnet-Pedagogías Queer-735790.pdf
- El consentimiento (Para niños y niñas). Como poner límites, pedir respeto y estar a cargo de ti mismo.pdf
- Hurren eskubideen hitzarmena
- El servei comunitari per a l'alumnat de secundària obligatòria. Una acció educativa en el marc curricular.
- Generalitat de Catalunya, Departament d'Ensenyament.
- Guía práctica de aprendizaje-servicio. Roser Battle.